

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

170/2020 Foru Agindua, uztailaren 23koa. Arratzua-Ubarrundiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 2. aldaketa puntualari dagokion espedientearen behin betiko onarpena zenbait baldintza ezarrita

I. AURREKARIAK

Lehenengoa. 2018ko abenduaren 17ko osoko bilkuran, Arratzua-Ubarrundiako Udalak erabaki zuen hasieran onartzea Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 2. aldaketa puntuala.

Erabakia ALHAOren 149. zenbakian argitaratu zen 2018ko abenduaren 28an, eta Diario de Noticias de Álava egunkarian 2018ko abenduaren 31n. Aldaketaosatzen zuen dokumentazioa 30 egun egon zen jendaurrean, eta ezarritako epealdian ez zen kontrako alegaziorik aurkeztu.

Bigarrena. 2020ko otsailaren 6ko osoko bilkuran Arratzua-Ubarrundiako Udalak espedientearen behin-behinean onartzea erabaki zuen.

Hirugarrena. 2018ko azaroaren 9an, Ingurumen Jasangarritasuneko Zerbitzuak txostena egin zuen, eta bertan adierazi zuen, aldaketaren edukia eta irismena kontuan hartuta, aldaketa ez dagoela ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozeduraren mende.

Laugarrena. Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean 2019ko maiatzaren 21ean sartu zen idazki baten bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak Arratzua-Ubarrundiako hiri antolamendurako plan orokorraren 2. aldaketa puntualaren espedientearen kopia bidali zuen.

Bosgarrena. 2019ko ekainaren 7an, AFAko Ingurumen eta Hirigintza zuzendariak Arratzua-Ubarrundiako Udalarari jakinarazi zion, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak bidalitako espedientearen aztertu ondoren, zenbait dokumentu falta zirela, eta dokumentu horiek AFARI bidaltzen zaion espedienteari erantsi beharko zaizkiola, aldaketa behin betiko onar dezan.

Seigarrena. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, ekainaren 26ko 4/2019 bilkuran, erabaki zuen ez jartzea eragozpenik espedienteari, lurralde antolamendura egokitzeari dagokionez, eta URA - Uraren Euskal Agentziak, Gobernuak Araban duen Ordezkariordeztako Sustapen Eredu Funtzionalak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak egindako aldeko txostenak bidali zituen.

Zazpigarrena. Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean 2020ko otsailaren 28an aurkeztutako idazki baten bidez, Arratzua-Ubarrundiako Udalak espedientearen bidali zuen, behin betiko onets zedin, bai eta 2019ko ekainaren 7ko jakinarazpenean eskatu zitzaion dokumentazioa ere.

Zortzigarrena. Era berean, Arabako Hirigintza Batzordeak txostena egin zuen espediente horri buruz uztailaren 16ko 2/2020 bilkuran, Diputatuen Kontseiluak 1999ko abenduaren 14an onartutako 155/99 Foru Dekretuan agindutakoa betetzeko.

II. OINARRIAK

Lehenengoa. Uribarri-Ganboako Administrazio Batzarrak sustatutako eta Arratzua-Ubarrundiako Udalak izapidetutako espediente honen xedea da 1-33 lurzatiaren hirigintza kalifikazioa aldatzea, bai zonakatze globalari dagokionez, "komunitate ekipamendu instituzionaleko eremu publikoa" (G.9) izatetik "komunitate ekipamendu orokorreko eremu publikoa" (G.0) izatera,

bai Uribarri Ganboako eskolen eraikin zaharra kokatzen den eremuaren zonakatze xehatuari dagokionez, "komunitate ekipamendu instituzionaleko azpieroemu publikoa" (g.9) izatetik "komunitate ekipamendu orokorreko azpieroemu publikoa" (g.0) izatera.

1-33 lurzatiak osatzen duen gainerako azaleraren zonakatze xehatuari dagokionez, adierazi behar da ez dela inolako aldaketarik izango indarreko plangintzak ematen dizkien azpieroemu publikoen kategoriei dagokienez, hau da, "espazio libreak: lorategiak eta hondakin espazioak" eta "bide komunikazioak"; ez eta horien dimentsionamenduari dagokionez ere.

Bigarrena. Aldaketak "B agiria - Hirigintzako araudia" dokumentuaren 2.1.1.18 artikuluari eta "hiri lurzoruaren eta lurzoru urbanizagarriaren zonakatze globala" P-3 eta "zonakatze xehatua" P-4 planoei eragiten die, udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Uribarri Ganboako guneari buruzkoak.

Hirugarrena. Aldaketa honen arrazoia da ekipamendu erabilera publikoak handitu egin beharra dagoela, gaur egun duen erakunde erabileratik harago. Birkalifikazio horrekin, ahalbidetzen da ekipamendu erabilerari buruzko hainbat kategoria aldi berean egotea "komunitate ekipamendu orokorreko azpieroemu publiko" (g.0) kalifikaziopean xede horretarako bideratutako espazio bakar batean.

Espedientea eta dokumentu teknikoa berrikusita, uste da ezin zaiola eragozpenik jarri aldaketari, salbu eta gai formal puntual bat, hain zuzen, binetak erreparasatu eta zuzentzea.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko onartzea Arratzua-Ubarrundia udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 2. aldaketa puntualaren espedientea, 1-33 lurzatiaren hirigintza kalifikazioa aldatzeari buruzkoa, proposatutako araudiaren atal desberdinetako binetak zuzentzearen baldintzapean.

Bigarrena. Aipatutako baldintzak ez dira funtsezkoak. Beraz, haiek zuzendutakoan, berriro jendaurrean jarri gabe, espedientea Arabako Foru Aldundiari igorriko zaio, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, izapideak egin daitezzen eta argitara dadin.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratuko da.

Laugarrena. Administrazio bidea agortzen duen ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 23a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO